

9. KOSTUAK:

Enpresa aurrera eramateko kostu desberdinei aurre egin behar diegu. Bi motatako enpresak bereizi ditzakegu kostuaren ikuspuntutik: balioan oinarritutako enpresa-ereduak eta kostuan oinarritutakoak. Gure kasuan, kostuan oinarritutako enpresa sortuko dugu. Gure kostuak baxuak dira eta ez gara produktu pertsonalizatu bat sortzen ari.

Alde batetik gure kostu finkoak furgoneta, garajearen alokairua (lokala), makineria, altzariak, gasa, argindarra... izango dira, besteak beste. Kostu aldakorrek berriz, janaria prestatzeko produktuak. Eskari oso handia badaukagu, hau handitu egingo litzateke eta ondorioz gehiago ordaindu beharko genuke. Kostu finkoetan, berriz, produkzioa kontuan hartu gabe, beti berdina izango da kostua. Kontuan hartzeko beste faktore bat, festa non den izango da. Izan ere, herriaren tamainak salduko den janari kantitatea kondizionatuko du.